

## FUNTSEZKO JARDUERAK

**Brick-plastic**-en egitasmoak funtziona dezan funtsezko jarduera batzuk egin beharko dira. Empresa honen kasuan funtsezko jarduerak hurrengoak izango litzateke:

Enpresaren funtzio nagusia ekoizpena denez arreta handia jarri behar zaio. Ekoizpena gauzatzeko lehenik eta behin materialaren erosketa egin beharko genuke; horretarako berrerabilitako plastikoaren salmenta egiten duten enpresa desberdinekin harremanetan jarri eta materiala lortu behar dugu.



Materiala lortu ondoren, enpresaren barne ekoizpena hasten da eta horretarako beharrezko makinaria erosi beharra izango lukeen enpresak. Materiala eta beharrezko makinaria izanik azkenengo produktua sortu eta hori alokatutako lokal batean gordeko litzateke bezeroei bideratu arte.

Bestalde, beste funtsezko jarduera bat sareko jarduera izango litzateke eta hori gauzatzeko lehenik eta behin webgune egoki bat sortu eta garatu beharko litzateke; horretarako profesional bat kontratatu beharko litzateke.

Gero, webgune egokia sortu ondoren bezero potentzialekin arrematena jartzeko sarea izango litzateke.

Bezeroak lortu ondoren epe luzerako hitzarmenak lortzea da beste jarduera garrantzitsuenetako bat enpresak aurrera jarraitu eta merkatuan murgildu eta finkatzeko.



Bezeroekin harremana finkatu eta proiektuak aurrea doazen eian proiektuen jarraipena egitea ere garrantzitsua da hurbiltasuna mantentzeko bezeroekin.

Azkenik, materiala dagokionez oso material erosoak izango litzateke lan egiteko eta azkenengo produktua ere transporterako erosoak izango litzateke; horrek esportazioa erraztuko lukeen eta esportazioko gastuak gutxitu.